

aek
23.korrika



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus



“XIBERUA KANTU LORATURIK” IKUSKARIAREN ESTREINALDIA KORRIKA KULTURALAREN BAITAN.

Gaur, Gaiarre antzokian, Nafarroako arduradun Asier Biurrunek KORRIKA Kulturalaren baitan estreinatuko den “Xiberua kantu loraturik” ekitaldiaren berri eman du.

“Xiberua kantu loraturik” Loraldiak ekoiztutako azken ikuskaria da, eta Zuberoako kantu tradizionalak ikuspegi garaikideaz taularatzen ditu. Otsailaren 22an aurkeztuko da Iruñeko Gaiarre Antzokian, arratsaldeko 19:00etan. Sarrerak antzokiaren webgunean eskura daitezke, 7 edo 5 euroan, laguntzaileek ekitaldi honetan ere abantaila izanen baitute.

Biurrunek gogora ekarri du Loraldiko beste bi ekoizpen ere KORRIKA Kulturalaren esparruan estreinatu direla: *Kalaportu* (2019) eta *Hautsi da anphora* (2022), batak zein besteak arrakasta handia lortuta. Biurrunek gehitu du azken ekoizpen hau garatzeko, Ipar Euskal Herrian aurki daitezkeen musikaririk eta ahotsik ederrenak eta berritzaileenak bildu direla, horien artean bere ondoan zegoen Julen Achiary, zeina, ahotsa eta perkusioa izateaz gain, gidari artistiko arituko den, Beñat Achiaryrekin batera.

Ondoren, Julenek hartu du hitza, eta azaldu du Zuberoako sortzaileek tradiziotik abiatuta kultura garaikide aberatsa loratu dutela. Basa-aireak, kantuak eta irudiak uztartzen dituen ikuskaria dela aurreratu ostean, herri-kantu horien aberastasun esentzialarekin esperimentatzeko gonbita luzatu du.

“Iraganari so egingo diogu geroa marrazteko. Antzinako kantuak izango dira, baina garaikidetasun-eremuan kokatuko ditugu. “Belatxa” kantan, adibidez, non hegazti baten hegaldia kantatzen den, ez da faltako sormen zirraragarria. Gaur egun, orain dela milaka urte bezala, naturak eskaintzen digun nortasunaz baliatzen gara. Etorkizuneko hodeiartza dugu ikusmiran” gehitu du, ekoizpen hau aurrera aterako duen sortzaile-taldeari erreparatu aurretik.

Bukatzeko, Asierrek KORRIKA kulturalaren baitan Nafarroa osoan egingo diren hainbat ekitaldi aurkeztu ditu: Lander Garroren “Oihaletxea” dokumentala, “eMCumeak” Antsoainen, “Belarriprest” Tafallan, “Euskaldun berrien kluba” Bortzirietan eta Mugiron, “Gure erro eroak” Zangozan, “Badon” Auritzen eta Altsasun edo “Bihotz... bi hots” Iruñean, besteak beste. Amaieran, gogorarazi du, hurrengo asteotako agenda ekitaldiz elikatzen den heinean, Korrika.eus webgunean ere eguneratuta egongo dela ikusgai.

ARABA
Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA
Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA
Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA
Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA
Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus

aek
23.korrika



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus



LA PRODUCCIÓN “XIBERUA KANTU LORATURIK” INCLUIDA EN LA AGENDA DE KORRIKA CULTURAL.

Esta mañana, el responsable de KORRIKA en Navarra, Asier Biurrun, ha informado del estreno del espectáculo “Xiberua kantu loraturik” incluido entre las actividades programadas para la KORRIKA cultural.

Xiberua kantu loraturik es una producción de Loraldia, que pone en escena la canción tradicional suletina con visión contemporánea. Se presentará el 22 de febrero a las 19:00 horas en el Teatro Gayarre. Las entradas están ya disponibles en la web del teatro, a un coste de 7 euros (5 euros para las personas que sean KORRIKA laguntzaile).

Biurrun ha recordado que otras dos producciones de Loraldia se han estrenado en este mismo contexto: *Kalaportu* (2019) y *Hautsi da anphora* (2022), y que ambas cosecharon un gran éxito. También ha subrayado que para la creación de esta obra Loraldia ha reunido un equipo con los/as músicos/as y voces más bellas e innovadoras de Iparralde, entre ellas el artista que le ha acompañado, Julen Achiary, quien, además de voz y percusionista, asumirá el papel de guía artístico junto a Beñat Achiary.

A continuación Julen ha tomado la palabra, y ha explicado que partiendo de la tradición, las y los creadores que habitan las faldas septentrionales del Pirineo han hecho florecer la rica cultura contemporánea actual. Tras adelantar que se trata de un espectáculo que combina aires silvestres, canciones e imágenes, ha invitado al público a experimentar con la riqueza esencial de dichas canciones populares.

“Miraremos al pasado para dibujar el futuro. Serán canciones antiguas, pero las situaremos en el ámbito contemporáneo. No faltará la impactante creatividad que canta el vuelo de un ave, como en el tema “Belatxa”. Hoy, como hace miles de años, nos servimos de la personalidad que nos ofrece la naturaleza. Vemos el horizonte del futuro” ha añadido, antes de presentar el impresionante equipo de creación que desarrolla este espectáculo.

Por último, Asier ha retomado la palabra para dar a conocer parte de la oferta cultural que se podrá disfrutar en las próximas semanas dentro del marco de KORRIKA cultural: el documental “Oihaletxea” de Lander Garro, “eMCumeak” en Antsoain, “Belarriprest” en Tafalla, “Euskaldun berrien kluba” en Bortziriak y Mugiro, “Gure erro eroak” en Zangoza, “Badon” en Auritz eta Altsasu o “Bihotz... bi hots” en Iruñea son unos ejemplos. Como último apunte antes de despedirse, ha recordado que en la web Korrika.eus se irá actualizando la agenda a medida que se vaya enriqueciendo con diferentes actividades.

ARABA
Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA
Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA
Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA
Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA
Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus